

## **AZPEITIA / Ipuin kontaketak astelehenetik aurrera Udal Liburutegian**

«Haur eta gaztetxoek liburu zaletasuna sustatzeko», 24. ez ipuin kontaketak antolatu ditu Udal Liburutegiak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

4tik 10 urte bitarteko haurrei zuzendutako saioak dira. Urrian, azaroan eta abenduan eskainiko dira, astelehenetan, arratsaldeko 6etan hasita. Ipuin kontalariak, besteak beste, Mikel Aiertza, Izaskun Mujika, Miriam Mendoza, Oihana Etxegibel, Pello Añorga, Annie Funny, Manex, Lupe Lekuona eta Zurrumurru Taldea daude aurreikusita.

Astelehen honetan bertan emango zaio hasiera ekimenari. Haur Hezkuntzako 4. mailakoei zuzenduta egongo da, hau da, 2009an jaiotako haurrei. Mikel Aiertza izango dute ipuin kontalaria.

Hurrengo saioa, urriaren 28an, Haur Hezkuntzako 5. (2008. urtean jaiotako) mailakoentzat izango da, eta ipuin kontalaria, berriz, Izaskun Mujika. Azaroaren 4an, LH 1, 2, 3 eta 4koen txanda izango da eta Miriam Mendoza ariko da kontaketeetan.

Azaroak 11 izango da hurrena eta HH4ko haurrek Oihana Etxegibelekin une polita igarotzeko tartea izango dute. Honela, jarraituko du ekimenak abenduaren 16a bitartean. Astero egitarauaren berri ematen jarraituko da orri honetan.

Antolatzaileek aurrez adierazi nahi dute, puntualitatea garran-tzitsua dela honelako saioetan. Behin saioa hasi eta gero ez bai-tzaio inori sartzen lagako.